

## Antxiñako fotografixia

### Batzokiko poxpoliñak eta ezpata-dantzariak

**P**olitikiaren gorabeherengatik asko iraun baezpeben be, **dantza-talde** politta euki eben Oñatiko Batzokixak II. Errepublikariaren urtietan. **Poxpoliñak** ziran alde batetik, neskatillak; eta **Ezpata-dantzariak** bestetik, mutikak. Alkarrekin be dantza egitten euen batzuetan. **Edurne Galartza dantza-maistriaren** aginduetara, San Martiñeko arboladixan ikasten euen eguraldi ona bazan, eta, aterpe baten biharra baeguen, Kale Zaharrian ensaiaitten euen, orduko 57. numeruaren etxepeko lokalian, urte batzuk geruago Romulo Azkueren bakelita-taillerra egon zan lekuan. Txistulari-lanetan, berriz, **Demetrio Iriartek** edota haren semeren batek jarduten eben.



Dantza herrixan egitten euen, **San Inazio egunian** eta beste jai señalau batzuetan. Dantzari txikiñok **urtero** egitten euen **eskur-siñoren bat** herrittik kanpora. Bizkai aldera faten ziran gehixenetan: Gernikara eta Urdaibai inguruko herrittara batez be, hau da, Forua, Sukarrieta, Mundaka, Bermeo eta abarretara. Ibillaldi hareittako **andereño-zaintzaille** batzuk **Genobeba Aranburu, Pas-tora Arrazola** eta **Dorotea Madinazkoitia** izaten ziran. Ezkerretik eskumara eta goittik behera hona fotografixa honetan agiri diran neskatilla-mutikuon izenak:

Goixeneko illaran zutik: **X. X.**; **Justo Lizarralde**, Uztarriñenekua [?]; **Joxe Beitia**, Kastillona; **Joxe Artza**, Kale Zaharrekua; **Eduardo Azpiazu**, Kale Barrikua; **Luis Aranburu**, Petokiñena; **Migel Aiausti**, Kurtzekua; **Jon Iraola**, Txapanekua; **Joxe Mari Iturrospe**, Nikomedesena; eta **Xabin Zelaia**, Pintxena.

Erdiko illaran zutik: **Nati Beitia**, Kastillona; **Maritxu Pradera**, Jose Mari txoferraren alabia; **Enkarna Iriarte**, Demetrio danbolintteruaren alabia; **Trini Arregi**, Makalenekua; **Izaskun Galartza**, Basilio medikuaren alabia; **Tere Eros-tegi**, San Antue kalekua; **Miren Iraola**, Txapanekua; **Belen Zufiria**, Tetuan (Zubibarri) kalekua; **Anetxu Elortza**, Mendiko kalekua; eta **Martina Ugarte**, Olalde baserrikua.

Beheko illaran jarritta: **Juanito Arkauz**, Kukarruena; **Mikelita Iraola**, Txapanekua; **Donato Biain**, Kale Zaharrekua; **Ana Mari Biain**, Patruie kaleko Perratzaillienekua; **Daniel Oleaga**, Kale Zaharrekua; **Milagros Madinazkoitia**, Kale Zaharrekua; **Kruz Garai**, Patruie kalekua; **Rosarito Letamendi**, Fueruen plazakua; eta **Antonio Izaga**, Bakardadeko Amaren kalekua.

Argazkixa ospittal zaharreko errajen kontra atarata daguela emuten dau, oraingo Zuazola institutuaren plazatuaren aurrekaldian. Urtia, berriz, 1932-1933 ingurua izan leike.

J. E.

Martina Ugartek eskuratu dosku fotografixia. Informaziño gehixena be Martinarena da, baiña Mikel Iturrospe, Imanol Murua eta Begoña Idigorasek be argittu doskue daturen bat. Milla esker danoiri!